

# ZER EGIN LARRIALDI KIMIKO BATEN AURREAN?

# ¿CÓMO ACTUAR ANTE UNA EMERGENCIA QUÍMICA?

Agintariek larrialdi kimikoa jakinarazten badizute, egin kasu liburuxka honetako jarraibideei.

Si las autoridades te anuncian una emergencia química, sigue las instrucciones que encontrarás en este folleto.




www.euskadi.net/112

aurrera doan herria · un país en marcha

EUSKO JAURLARITZA · GOBIERNO VASCO

HERRIZAINGO SAILA
Herrizaingo Sailordetza
Larrialdiei Aurregiteko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE INTERIOR
Viceconsejería de Interior
Dirección de Atención de Emergencias

112 SOS DEIAK

## ARRISKUARI AURREA HARTU PLANGINTZA EDUKIZ ETA ERAGINKORTASUNEZ.

Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurregiteko Zuzendaritza segurtasun industriala lantzen ari da eta ahalik eta arrisku industrial gehienak saihesten saiatzen ari da. Europako araudiaren arabera, Eusko Jaurlaritzaren zeregina da eragin diezazkieketen arriskuaz herritarrei jakinaraztea. Ezbeharra gertatuz gero, eragindako pertsonek zer egin baldin badakite, egon daitezkeen ondorio negatiboak nahikoa gutxituko dira. Liburuxka honek jarduteko arauak hurbildu nahi dizkie herritarrei, larrialdi kimikoa gertatuz gero.

## LARRIALDIEI AURREGITEKO ZUZENDARITZA

Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saileko Larrialdiei Aurregiteko Zuzendaritzak herritarrek jasan ditzaketen arriskuak aztertu eta aurreikusten ditu. Horretarako:

- Arriskuari aurre egiteko modurik egokiena aztertzen dute.
- Aurre egiteko modurik onena erabakitzen dute.
- Larrialdietako taldeak (suhiltzaileak, polizia, osasun zerbitzuak) zuzendu eta koordinatzen dituzte emaitza hobeak lor ditzaten.

## LARRIALDI PLANA

Larrialdi egoerei aurre egiteko tresna egokia da.

Larrialdia gertatuz gero, eraginkortasun handiena lortzea du helburu. Horretarako, egin beharreko jarduerak aurreikusten dituzte, azkarrago eta eraginkortasun handiagoz jarduteko eta inprobisazioa saihesteko asmoz.



## PREVENIR EL RIESGO CON PLANIFICACIÓN Y EFICACIA

La Dirección de Atención de Emergencias del Gobierno Vasco, trabaja en la seguridad industrial e intenta evitar al máximo los riesgos industriales. Es tarea del Gobierno Vasco, de acuerdo con la normativa europea, explicar a la población los posibles riesgos que le afectan. Si las personas afectadas saben qué hacer en caso de accidente, sus posibles efectos negativos se reducirán notablemente. Este folleto pretende acercar a los ciudadanos las normas de actuación en caso de que se produzca una emergencia química.

## LA DIRECCIÓN DE ATENCIÓN DE EMERGENCIAS

La Dirección de Atención de Emergencias del Departamento de Interior del Gobierno Vasco estudia y prevé los riesgos que puede sufrir la población. Para este objetivo:

- Estudian la mejor manera de prevenir el riesgo.
- Deciden la mejor manera de afrontarlo.
- Dirigen y coordinan a los cuerpos que trabajan en las emergencias (bomberos, policía, servicios sanitarios) para que consigan un mejor resultado.

## EL PLAN DE EMERGENCIA

Es la herramienta adecuada para hacer frente a las situaciones de emergencia.

Su finalidad es conseguir el máximo de eficacia en el caso de que se produzca una emergencia. Para ello, contempla las acciones a realizar para actuar con una mayor rapidez y eficacia y evitar la improvisación.

## ZER GERTA DAITEKE?

### Sutea
Suteek hainbat arrisku dute: zabaltzea (inguruko aldeetara zabal daitezke), ke toxikoa (batzuetan, arriskutsua), bero itogarria eta eztanda egiteko aukera, gai jakin batzuetara helduz gero.

### Gas ihesa
Toxikoa edota sukoia izan daitekeen gas-hodeiak haizearen aldean dauden arloak eragin ditzake.

### Eztanda
Eztanda izan den tokian dagoen etxeko aldeko leihoak apur daitezke eta zenbait elementu askatu, esaterako beirak edo sare edo egur zatiak, oso azkar jaurti daitezkeenak.

## NOLA JAKINGO DUZU?

### Alerta abisua eta alerta amaiera
Agintariek larrialdia gertatu delako alerta emango dizute, bai megafonia bidez edo bai irrati eta telebista bidez emandako abisuen bitartez. Amaitzen denean ere, baliabide berdinak erabiliko dituzte abisatzeko.

**Gainera, alerta modu azkarragoan eman behar den tokietan sirenak jarri dira, eta horrelakoetan:**

### Alerta abisua
Sirena batek emango du alertaren berri: minutu bateko hiru seinale errepikatuko ditu bost segundoko isiluneak eginez.

1 min — Isilik 5 seg — 1 min — Isilik 5 seg — 1 min

### Alerta amaitzeko abisua
Alerta-amaiera sirena batek iragarriko du 30 segundoko seinale jarraituaren bidez.

30 seg



## ¿QUÉ PUEDE PASAR?

### Un incendio
Los incendios encierran diversos riesgos: propagación (pueden extenderse a zonas vecinas), humo tóxico (en algunos casos, peligroso), calor asfixiante y posibilidad de explosión si alcanzan a determinadas substancias.

### Una fuga de gas
Las áreas que quedan a favor del viento se verán afectadas por una nube de gas que puede ser tóxico y/o inflamable.

### Una explosión
Las ventanas de cara del edificio que dan al lugar en donde se produce la explosión pueden romperse y desprenderse algunos elementos, como vidrios o fragmentos de reja o de madera, que pueden proyectarse a gran velocidad.

## ¿CÓMO LO SABRÁS?

### Aviso de alerta y final de alerta
Porque las autoridades, a través de megafonía o de avisos transmitidos por las emisoras de radio y televisión, te alertarán de que se ha producido una emergencia. Cuando haya finalizado, te avisaran por los mismos medios.

**Además, en los lugares donde es necesario trasmitir la alerta de una forma más rápida, hay sirenas instaladas; en este caso:**

### Aviso de alerta
La alerta se anunciará por una sirena que repetirá tres señales de un minuto de duración con intervalos de cinco segundos de silencio.

1 min — Silencio 5 seg — 1 min — Silencio 5 seg — 1 min

### Aviso de Final de Alerta
El final de la alerta se anunciará con una señal continua de sirena durante 30 segundos.

30 seg

## ZER EGIN BEHAR DUZU?
## ¿QUÉ HAS DE HACER?



**Kalean bazaude, babes itzazu arnasbideak.**
**Si estás en la calle protégete las vías respiratorias.**



**Sartu azkar gertuen dagoen etxe barruan.**
Kalean zaudela, agintarien abisua edo sirenaren soinua entzuten baduzu, babestu etxe hurbilenean. Hobe barruko geletan sartzen bazara.
**Enciérrate de prisa en el lugar más cercano.**
Si estás en la calle, al oír el aviso de las autoridades o el sonido de la sirena, refúgiate en el edificio más cercano. Es preferible encerrarse en las habitaciones interiores.



**Itxi ateak, leihoak, pertsianak eta aire-sarrera guztiak.**
Ahal baduzu, zigilatu kanpoaldeko irekierak (zinta isolatzaileaz, zapi hezeaz,...).
**Cierra puertas, ventanas, persianas y toda entrada de aire.** Si puedes, sella las aperturas al exterior (con cinta aislante, trapos húmedos...)



**Irratia entzun.**
Sintonizatu irrati nagusiak, informazioa eta jarduteko aholkuak jasotzeko.
**Escucha la radio.**
Para recibir información y consejos de actuación sintoniza las principales emisoras de radio.



## ZER EZ DUZU EGIN BEHAR?
## ¿QUÉ NO HAS DE HACER?



**Ez erabili aireztatze ezta berotze sistemarik.**
Beharrezkoa da edozein aire-sarrera kanpotik ixtea, gas toxikoak edota sukoiak sar daitezen saihesteko.
**No utilices los sistemas de ventilación y calefacción**
Es preciso cerrar cualquier entrada de aire desde el exterior para evitar la entrada de gases tóxicos y/o inflamables.



**Ez erre eta ez piztu surik.**
Airean gas egonez gero, eztanda egiteko edo su hartzeko arriskua legoke. Beharrezkoa ez denean ez piztu ez itzali argirik.
**No fumes ni enciendas fuego.**
Si hubiese gas en el aire, habría peligro de explosión o de incendio. Evita también encender y apagar las luces si no es necesario.



**telefonoa.**
Ez erabili telefonoa. Beharrezkoa da telefono-lineak libre uztea, sorospen taldeetarako eta ezinbesteko kasuetarako.
**No uses el teléfono.** Es necesario dejar las líneas libres para los equipos de socorro y para casos imprescindibles.



**Ez zaitez joan eskolara umeen bila.**
Irakasleak arduratuko dira. Larrialdietan jokatzeko prest daude eta jarraibideak dituzte.
**No vayas a buscar a los niños a la escuela.**
Sus maestros se ocuparán de ellos. Están preparados y tienen instrucciones sobre cómo actuar en caso de emergencia.






**Ez irten kalera larrialdia amaitu arte.**
Agintariek larrialdia amaitzean abisatuko zaituzte megafonia, irrati edo sirenen (jarrita dauden lekuetan) soinuaren bidez.
**No salgas a la calle hasta el final de la emergencia**
Las autoridades te avisarán por megafonía, a través de la radio o por el sonido de las sirenas allí donde estén instaladas, cuando haya acabado la emergencia.

## GAINERA, EZTANDA IZATEKO ARRISKUA BADAGO...
## ADEMÁS, SI HAY PELIGRO DE EXPLOSIÓN..



**Alde egin leiho eta beirateetatik eta joan eztanda izan daitekeen tokiaren beste aldera,** izan ere apurtzen badira beirazko, sarezko edo egurrezko zatiak jaurti baititzake. Hobe barruko geletan sartzen bazara.

**Aléjate de las ventanas y vidrieras y refúgiate en la parte opuesta a donde se espera la posible explosión** que podría romperlas y lanzar trozos de vidrio, de reja o madera, etc. Es preferible encerrarse en las habitaciones interiores.



**Beirak babestu zinta isolatzailearekin gurutze bat eginez.** Horrela askatzea eta jendearen kontra jaurtitzea saihestuko duzu.

**Protege los vidrios haciendo una cruz con cinta aislante** Así evitarás que se desprendan y salten contra las personas.



**Jaitsi pertsianak eta itxi gortinak.** Horrela, babestuago egongo zara.

**Baja las persianas y corre las cortinas** Así estarás más protegido



## LARRIALDIA PASA ONDOREN
## DESPUÉS DE LA EMERGENCIA



**Ez atera agintariek irrati edo megafonia bidez jakinarazi arte** edo alerta-amaiera seinalea entzun arte, kanpoko airea kutsatuta egon baitaiteke.

**No salgas hasta que te lo comuniquen las autoridades,** por radio, por megafonía o, si hay instaladas sirenas, hasta que escuches la señal de fin de alerta. El aire de fuera podría estar contaminado



**Ateratzerik duzunean aireratu lokal osoa.**
**Ventila todo el local una vez te hayan autorizado a salir.**



**Ez zaitez jaitsi sotoetara.** Jakin arte sotoetan gas toxikorik edota lehergarririk dagoen.

**No bajes a los sótanos.** Hasta estar seguro de que en los sótanos no hay gases tóxicos ni explosivos

**Badaezpada, hauxe eduki behar duzu etxean:**

- Irratia eta ordezko pilak (berritu hiruhileko bakoitzean)
- Linterna
- Zinta isolatzailea
- Babesteko aholkuen liburuxka toki ikusgarrian.
- Jakin behar duzu non dauden argindar elektrikoaren etengailu nagusia eta ur eta gas etengailuak

**Como precaución ten en casa:**

- Una radio y pilas de recambio (renuévalas cada trimestre)
- Una linterna.
- Cinta aislante.
- El folleto con los consejos de protección en lugar visible.
- Debes saber donde esta el interruptor general de la corriente eléctrica y las llaves de paso de agua y del gas.

## ERAGINDAKO ZONAK
## ZONAS AFECTADAS




Larrialdietan 112 telefonora deitu.
En caso de emergencia llama al 112.

((112)) SOS DEIAK

## Udalerriak
## Municipios

Abanto-Zierbena
Alonsotegi
Amurrio
Barakaldo
Erandio
Galdakao
Güeñes
Hernani
Iruña Oka
Lantaron
Laudio
Legutiano
Muskiz
Santurtzi
Usurbil
Zaratamo
Zierbena